

UELA

ri berriak gogo onez. Caracas'en Z. ARGIA'ren korres-

o, orri auetan irakurleak ikusi dezaken bezela.

onetaz artikulu batzuek idatzitea gure arteko artu-emanak

na de Caracas» en demboran ugariak izan ziran eta.

EUSKAL-APAIZAK Venezuelan

Venezuelako ahorean zabaldua. ko zenbari ontan Euskal-Elizaz min tzatzean, bildurrak ez, baño olako zerbaitek eragiten nau.

Aspaldi ontan kristau-gizonok Eliz-barrutian oso atsegin ere, ez gela arkitzen esan dezaket.

Goikoak, dugunok, eztegu danok beti zintzoki jokatu izan oita gure kristau-bizitzan ibenez besterik gelditzeko arriskuan gaude. Estutana, eskuribidegabekook, Eliza gure etsaletara (kristauok etsairi al izan ba'genezake bezela) emanegia dagoa. Iruditzen zaiguneean, Arekiko artuemanak eta lokarriak ausi egi ditugu. Noiz eta, artueman oiek ugaritzeko bear aundiago zegoen.

Eztegunok eta degunok Elizaz aspertu ere egin gera, gure bakoitzaren aldeko interesak alboekoenak zapaltzeko erabilii ezituzanean. Eliza dauen interesak (interes zuzenak, jakina) ta batez ere azpian dau denarenak babesteko dagola, jakin, go ez ba'gendu bezela.

Au da aitatutako kezakaren zioa: Nola Elizaren barneko indarraz jardun, Eleizarenaganako oztasuna ageridutenentzat?

Maikekiako aeropuertoan, 1959'ko urtillaren azken-egunean, II gazte euskaldunak lur egin zuten.

Etziran auker lenengoak noski. Zenbat euskaldun ez ote daude Karakaseko inguruetan?

Lur egin ondoren, itxogiten zituzten beste iru euskaldunekin zuzenean abitu ziran Estado de Miranda'ko lurralderuntz. Ikumare del Tuy erribururaño eldu arte.

Oerakoan, dauen arteko alkar-izkatoren gañetik, itz auek entzun ziran: Aizute, al'zerate kontu, ratu mixiolari biurtu gerala?

Mixiolariaren eginkizuna garai bateko konkistadorearenekin maiz alkatu izan oit degu. Onen eginkizuna, erregearen izena ta almena, bereanarekin batera, zabaltzea zanez, arena, Elizaren indar-aunditza bezela artu izan degu. Egia da,

mixiolariaren lanak Elizaren izena sendotzen dutela. Aia ere, mixiolariak, konkistadorearen asmoekin, ezin dezake aurtera ekin.

Mixiolaria, Jainko-erriaren bidalla da. Erri au ezta lurralde mugatu batera lotzen, ez ere izakera ta oitura jakinetara. Jainko-erri au ezta gizon taldeetik edo buru argiko gizonatik sortu. Bere egilea, Jainko dan Gizona degu. Erriaren mugak lurra oso betetzen dute ta bere barrutian gizon ta gizon-baoler oro onartzen dira. Orain XX belaunaldi bete dira maitasun eta apaltasunaren azia ageri zitzaigula.

Venezuela gazteak, erri askorentzat eredu dana, kristautasunerako indar bat geyago jaso du. Euskaldunak zaizkie, baño auker daramaten doala ezta Euskalerrian edo Babilkanoan sortutakoa. Jainkoak gizonari emandako doai berbera balizik. Etsalei barkatzera ezezik, gizonaren alde jokatzera eragiten gaitun doala.

Or, ariko dira gure gazteak Venezuela baxterretan garai bateko kristautasuna sendotzen. Jainko doala gizonaren muñifetan tinkatzen danean, ezta gizon-eginkizunik egilaren eta zuzentasunaren azraketa ibilii gabe gelditzeko. Maitasunak ortara eragiten baitio. One, begi zorritzaz, lekuko baloreak atzeman ondoren loraratu ditugu. Venezuelak duan ederra areagotuz eta eraberean Munduarena ere auditu.

Ontarako, urtillaren azken-egun batean, II gazte euskaldunak Karakaseko inguruetan lur egin zuten.

Ara emen, Rafael Arias'ek (G.B.) Karakaseko arzobispoa, ta Alberdi'tar Koldob'ka'k, euskal-Gotzaien ordekoa, pimatuz zutenaren lenengo lerroak: "Karakaseko arzobispoak, Valle del Tuy'ko Urdaneta, Lander ta Paz del Castillo'ren distrikoak Euskal-Eliz. barrutiari eskeintzen dizkio distrietoetako parrokien, kar-gu artu dezan...". Karakas'en, 1059'ko otsailaren 21'nean pimatua dago.

Venezuela'ko kirolaren erregina euskalerrian jaio da

Izena: Begoña Meabe

Sei urte zituala Venezuela'ra iritxi zan

«El Nacional» Venezuela'ko egunerokorik onenetakoa da. Urte ontako ibeltzaren 13'koatik jartzen degu oraingo au.

Euskaldun artean atzo El Paraiso'n zorionak arrunt entzun ziran eranezun Kiroletako Erregina izendatuta izan dan Begoña Meabe'k bere lagun eta ezagunekin solasean arkitzean.

Begoña neska jator bat da eta edozeñen galderak erantzueteko prest dagona.

—Oso nerbioa negoa; baina danak onak izan ziran nerretzat eta orrek lagundu ziran emozioa auster— erantzuten zuan elezioa nola izan zan galdetzen ziotenean.

Begoña Meabe'ren aldamean zegoan taldean sartuta bakarrik itzegin al izan nuan, labur, berarekin:

- Jaio?
- Barakaldo'm, Bizkaia'n, ogei urte.
- Noiz etorri Venezuela'ra?
- 1950'gnean.
- Beti Caracas'en bizi izan al zera?
- Ez, urte asko Chigua'n pasatu ditut nere guraso ta semidekin.

- Lan egiten dezu edo ikasi?
- «Macuto Industrietan» egiten det lan sekretaria bezela.

- Danak ziran politik.
- Eta koronazioaren ondo-rendik, jator jokatu al zuten?
- Bai, oso. Batez ere Annelise Bockenbach. Baita ere Iratse Mexico'ra edo Brasil'era PAA'ren beaje bat irabazi dezu, nora joango zera?
- Mexico'ra.
- Rio'ko inauteriak ez al zaizkitzu guztizten?
- Mexico naigo det. Nazio orretaz simpati amdia det.
- Noiz joango zera?
- Datorren illean.
- Nork lagunduko dizu?
- Nere lengusuak, Bakartxo Meabe de Uzkanga'k.
- Zer kirol egiten dezu?
- Euskal pelota.
- Ez al da gogorra?



- Zenbat aldiz izan zera Kirolaren Erregina?
- Ordezkaria.
- ma Isturi'k eta Anzoategui'ko
- Ez, benetan. Oso politik ziran beste neskek.
- zu polita etzerala uste al dezu?
- Au da lenengoa.
- Irabazte ateratzea uste al zenduan?
- Erdi aldekoa besterik ez.
- Zure kontrakoetatik nor aukeratuko zenduen erregin?

- Butere ez, palan jokatzten degu ta. Pala leguna da ta pelota pisu gutxikoa. Egia esateko tennis'era jokatzera bezela da.
- Kirolaren Erregina bezela zer pentsatzten dezu egitea?
- Merezi gabeko omen artu dey eta al detan ondoen betetzten saiatuko naiz.
- Ezkongairik?
- Ez.
- Zure ordenetara gaude.

PEPE LOLO

UGALDE-TAR MARTIN'EN

LIBURU BAT

«CUANDO LOS PECES MUEREN DE SED»

Oso gogo onez mintzatzen naiz gai onetaz erri-tarra baidet egilea ta gañera adizkidea.

Ibeltzian artu nuan liburu egilleak berak bidallita ta bereala irakurri arteko pakarik ez nuan izan nere buruarekin. Izan ere ez baldizkiote bati egunero liburuak bialtzen egilleak berak eskeñita.

Ez nihoa liburu onen kritika egitera literaturari dagokionez, ez da ori nere egitekoa ez da nere gaia ta. Nere irudituz zaitena bakarrik esango det.

Venezuela'ko erriaren nortasuna geiago ikusi detala uste det Andes'tako Unibersidadearen Erretoretzak argitaratu duan liburu au irakurri ondorenean. Egia esan asko ziran ulertzen, ententitzen ez nituan itzak eta gauzak, bañan zorionez Venezuelatar batzuek badi-tut lagunen artean eta oi-el eskerrak ulertu ta ententitu al izan det liburu oso-osoan. Izan ere liburuak Andes'tan dauzen erri txiki-ken, gizonen izaera ta bizimodua azaltzen dizgiku. Mendi tartean eta baztertu antxian

dauen errien nortasuna ta egia azaltzen dizgiku. Venezuela'ko askoentzat ere ez ezaguna dan egia. Ez da ba arritzekoa liburu ortan guretzat itz eta gauz asko ulertu eziniekook izatea.

Liburu onek «El Nacional» Caracas'ko egunerokoarentzat egindako reportaje batzuek biltzen ditu. Orregatik bereala antzematen da liburu ori periodista batek idatzia dagona, ariñ —sakontasuna galdugabe— trebe, bizi, indartsu... azaltzen zaigulako. Benetan zoriondu bearrekoa egilea.

Alderdi aletako gai ta iguitu-bear guztiak aiatu ta erabiltzen ditu. Irakurlearen aurrean eten gabe ta bizitasun aundiarekin or dajozte gizonak era guztietakoak, erriak, oit-turak. Neretzat Venezuela'k izkutuian zuan anima bat arkitze izan da. Ta pozgarria gañera.

Bijoazki Ugalde'tar Martin'i nere erri-tar eta adizkideari zorionik beroenak.

ARREGI'tar RIKARDO'k